

**KOMUNITATEAN
DROGEN
MENDEKOTASUNEI
AURREA HARTZEKO
“ORIO” HERRI
PLANA**

**2006-2010
urteetarako proposamena**



AURKIBIDEA.

1	BEHARREZKO HITZAURREA. 1.1.- Fenomeno sozial bat: droga-mendekotasunak. 1.2.- Planifikatutako erantzun bat: Droga-mendekotasunei Buruzko Herri Plana.	5
2	AURREKARI HISTORIKOAK. 2.1.- Lurralde eremu orokorrekoak. 2.2.- Tokian tokiko eremuak.	7
3	LEGE-ESPARRUA. 3.1.- Herri Planean kontuan hartu beharreko oinarrizko legeak. 3.2.- Droga-mendekotasunen inguruan udalei emantako eskumenak. 3.3.- Droga-mendekotasunei buruzko Planarekin loturiko sektorearteko planekin koordinazioa.	9
4	DIAGNOSTIKO KOMUNITARIOAKO BIDEAN. 4.1.- Droga-kontsumoak eta erabilerak. 4.2.- Droga-kontsumoaren datuak eta joerak: azterketa konparatiboa. 4.3.- Droga-mendekotasunen Fenomenoarekin zerikusia duten arazoen inguruko datuak eta joerak. 4.4.- Droga-mendekotasunen fenomeno sozialaren inguruan egiten diren eskakizunen eta dauden pertzepzioei buruzko datuak eta joerak.	11
5	HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA. 5.1.- Plangintzarako irizpideak. 5.2.- Esku-hartze esparruak. 5.3.- Lehentasuna duten esku-hartze esparruak eta kolektiboak. 5.4.- Esku-hartze ezberdinen sailkapena. 5.5.- Eraldaketarako estrategiak.	17
6	PLANAREN XEDEAK ETA HELBURU OROKORRAK. 6.1.- Planaren baloreak eta printzipioak. 6.2.- Planaren xedeak edo helmugak. 6.3.- Planaren oinarrizko printzipioak. 6.4.- Planaren lehentasunak. 6.5.- Planaren helburu orokorrak. 6.6.- Herri Planaren konpromezu zehatzak.	21

7	PLANAREN PROGRAMAK ETA PROIEKTUAK. 7.1.- Prebentzio Proiektuen zehazpena eta karakterizazioa. 7.2.- Proiektuen sailkapena. 7.3.- "Orio" Herri planaren Programak eta Proiektuak. 1. PROGRAMA: Familia eremuko Osasun-Heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentzioa. 2. PROGRAMA: Eskola eremuan Osasun-Heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentzioa. 3. PROGRAMA: Komunitate eremuan Osasun-Heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentzioa. 4. PROGRAMA: Komunitate eremuan drogen eskaintza eta promozioa mugatzea.	29
8	PLANAREN BALIABIDEAK. 8.1.- Giza baliabideak. 8.2.- Baliabide ekonomikoak. 8.3.- Azpiegitura baliabideak.	44
9	PLANAREN EBALUAZIOA. 9.1.- Ebaluaziorako irizpideak. 9.2.- Ebaluaziorako adierazleak.	45
10	DROGA GAIAREKIN ERLAZIONATUTAKO BALIABIDE EZBERDINAK. 10.1.- Orion dauden baliabideak. 10.2.- Droga gaiarekin zerikusia duten baliabideak. 10.3.- Bibliografia. 10.4.- Internet helbideak.	46



1.- BEHARREZKO HITZAURREA.

1.1.- Fenomeno sozial bat: droga-mendekotasunak.

Drogak, nerbio sisteman edota errealtateen pertzepzioan aldaketak sortarazten dituzten substantzia naturalak, erdi-sintetikoak edo sintetikoak dira. Zibilizazio eta kultura guztietan modu batean edo bestean, beti erabili izan dira drogak, baita gaur egun ere. Kontsumo horietako asko eta asko egokiak dira, beste batzuk, berriz, desagokiak eta gutxi batzuk problematikoak. Drogen erabilpena zintzoki aztertu nahi bada, kontuan izan beharko dugu substantzia mota, dosia, norbanakoaren ezaugarriak, adina, sexua, kontsumitzen den testuingurua eta bere ezaugarriak, kultura eta legedia esaterako. Bestalde, kontuan hartu beharko dira baita ere substantzia berari dagozkion ezaugarriak, hala nola, sortzen dituzten efektuak, tolerantzia, abstinentsia sindromea, mendekotasun fisikoa, psikikoa edota funtzionala.

Drogen erabilpenean ere, zenbat buru hainbat aburu gertatzen dela esan dezakegu. Horrela, hain anitzak izan daitezkeen norbanako eta komunitate ezberdinen atzean, drogak erabiltzeko orduan helburu edo zergati aunitz egon daitezke. Sendatzeko, oinazeak arintzeko, jai girorako,

plazerra lortzeko erabiltzen badira ere, ihes egiteko, norberaren suntsipenerako, penak ahanzteko eta bizitzan aurrera egiteko erabiliak dira.

Norbanako bakoitza eta kontsumitzen den testuinguru soziala, kulturala, ekonomikoa, ekologikoa, emozionala... ezberdina denez, Fenomeno Sozial konplexu baten aurrean gaudela esan daiteke, bertan faktore anitzek eragiten baitute, eta aurre egiteko erabili beharreko estrategiak diziplina ezberdinetakoak izan behar dutelako.

Fenomeno Sozial honen aurrean, norbanakoak (substantziak erabiltzen ditugun subjektu gisa) eta testuinguruak (drogen erabilpen horiek egiten diren leku eta momentu gisa ulertuta) zerikusi handia dutelako, hain zuzen, jarri behar genieke arreta gehiago bi alderdi horiei. Honek ez du esan nahi alde batera utzi behar ditugunik droga izeneko substantzia horiek jende ororen eta adingabeetan edota egoera ahulean daudenetan sortzen dituzten efektuak.

Droga-mendekotasunen fenomenoak ikuspuntu soziokulturaletik aztertzeko premia dago, batetik, ikuspegi hau lagungarria suertatzen delako errealismo apur bat izateko, bestetik, gai honen inguruan dauden pertzepzio dramatikoak, banalizatzaileak edota debekatzaileak gainditzeko eta azkenik, errepresentazio sozial objektiboagoak, globalagoak, kausa anitzekoak eta normalizatzaileak eraikitzen joateko.



Substantziak

Pertsonak

Testuinguruak



1.2.- Planifikatutako erantzun bat: droga-mendekotasunei buruzko Herri Plana.

Konplexua den eta kausa eta faktore anitzez osaturiko Fenomeno Sozial baten aitzinean gaudenez, aurre egiteko eman behar diren erantzunak eta pausoak alor eta eremu ezberdinetakoak izan behar dute, elkarren artean koordinatuak eta planifikatuak behar dutelarik.

Droga-mendekotasunen Fenomenoak bere baitan errealitate mota ezberdinak hartzen dituenaz, berari aurre egiteko eta erantzun egokiak emateko burutua izan da "Orio" Herri Plana, alde aurretik planifikatutako tresna. Herri Planaren

diseinua, garapena eta ebaluazioa egiteko zutabe nagusiak ondoko lauok dira: normalizazio bidea, metodologia partehartzailea, planifikatutako prozesua eta estrategia komunitarioa.

PLANAREN

ZUTABE NAGUSIAK

normalizazio bidea

metodologia partehartzailea

planifikatutako prozesua

estrategia komunitarioa

Droga-mendekotasunei buruzko "Orio" Herri Plana, Orioko Udaren eta herritarren konpromezua jasotzeko asmoarekin egindako tresna da. Horregatik, ondoko bi baliabideak batera aritzea ezinbestekoa izango da, hau da, instrumentu teknikoa (planifikatua, operatiboa, ebaluagarria, etab. izango dena) eta aldaketarako instrumentua (udalerriko talde guztien, teknikarien, elkarten eta gaiarekin kezka eta interesa duten herritar ororen partaidetza, inplikazioa, ekarpenak, etab. kontuan hartuko dituenak).

Plan hau egiteko orduan kontuan izan dugu 2005eko otsailaren 10ean Eusko Legebiltzarrean onartutako Eusko Jaurkitutako Droga-mendekotasunen V. Planean jasotzen diren ekarpenak. Bestetik, proposamen hau burutu dugunok gaiaren inguruan urtetan egindako lanean lortu dugun eskarmentua

baliagarria izan da plana diseinatzeko garaian. Bost urterako egiten den proposamen honek, programa ezberdinak eta urteroko ebaluazioak jasotzen ditu. Diseinuaren, prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa egingo da eta horretarako adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak erabiliko dira. Azken batean, Orioko Droga-mendekotasunen Fenomenoari ahalik eta modu osasuntsuenean eta positiboenean heltzea da gure asmoa eta horretarako garatuko diren programak, proiektuak, esku-hartzeak eta erabiliko diren errekurtsoak ahalik eta modu eraginkorrean ebaluatuko dira, alegia, egindakoa zenbatetaraino izan den efikazia eta baliagarria aztertuz.

Plan hau, Osasunaren sustapenean, osasun-heziketan, droga-mendekotasunen prebentzioan eta edozein motatako substantzien eskaintza eta promozioaren murrizketan oinarritzen da. Orioko herrian, herriarentzat eta herriarekin fenomenoari aurre egiteko esku-hartzea jasotzen du; baita gizartea eraldatzeko tresna batzuk ere.

Bukatzeko esan, Planaren plangintza prozesu bat bezala hartu behar dela. Prozesu honetan lehenik eta behin errealitate sozialaren diagnostika egiten da, ondorengo estrategia-ekintzek izango dituzten lehentasunak eta estrategiak zehaztu ahal izateko. Honek, egun dauden bitartekoak eta aurrera begira beharrezkoak diren baliabideak zeintzuk izan daitezkeen zehaztea dakar. Bestalde, planean zer egin nahi den eta zertarako nahi den zehazten bada ere, behin-behinekoa izango da, abian goazela egokitzen joan beharko baita, etengabe aldatzen ari den errealitatera moldatu ahal izateko.

FENOMENO HONEN EZUGARRIAK:

= Konplexua

= Kausa anitzeko

= Faktore anitzeko



2.- AURREKARI HISTORIKOAK.

2.1.- Lurralde eremu orokorrekoak.

- ▣ Alkoholismoaren fenomenoarekin erlazionatutako errealitateei osasun mailako erantzunak ematen hasten dira. Horrela, XX. mende hasieran auto-laguntzarako lehen taldeak sortzen hasten dira, Alkoholiko Anonimoak esaterako.
- ▣ 70. hamarkadaren amaieran heroina kontsumoen inguruan sortu ziren egoerei eta errealitateei aurre egiteko herritarrak erantzunak bilatzen eta ematen hasten dira; horren adierazle dira sortu ziren taldeak, Askagintza, DEE, Gizakia Helburu eta Agipad.
- ▣ 80. hamarkadaren hasieran, errealitate horiei erantzun instituzionalak emateko asmoz DAK (Droga Arazoen Koordinakundea), Lehendakariaren Bulegoa, Eusko Jaurlaritzako Hiru urterako lehen Planak... sortzen dira.
- ▣ Eusko Legebiltzarra legegintzaren inguruko erantzunak ematen hasten da, Droga-mendekotasunen inguruko prebentzioari, asistentziari eta gizarteratzeari buruzko 15/1998 Legearen diseinua, eztabaida eta erabakia hartzearekin batera.
- ▣ Erantzun koordinatuak emate hasten dira elkarte eta erakundez osatutako herri mugimenduaren (Agipad, Etorkintza, Askagintza, Gizakia Helburu, etab.) eta Eusko Jaurlaritzako Droga-mendekotasunen Zuzendaritzaren artean (Droga Mendekotasuneko Euskal Aholku Kontseilua eta bere Batzorde Tekniko espezializatu ezberdinez osatutako egiturak).
- ▣ Udalen, mankomunitateen, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmenen bidez, Droga-mendekotasunen Prebentziorako udal lan-taldeak martxan jartzen hasten dira, horrela udal mailako erantzunak ematen hasten direlarik. Honek, herrietan sare teknikoak eraikitzea eta Prebentziorako Herri Planak gauzatzea ahalbideratu zuen.
- ▣ Hiru urteko Plan ezberdinetatik eta 18/1998 Lege berritik erantzun planifikatuak ematen hasi ziren. Lege berri honek aurrekoaren edukiak birplanteatu eta eguneratu egiten ditu. Berrikuntza honetan osasun-heziketaren eta udal mailako esku-hartzearen (EAEko udaletxeetan lan-taldeak, herri planak, etab. sustatzea) aldeko apustua egiten da.
- ▣ Herri eta instituzio mailan erantzunak ematen hastearekin batera, interbentzio- bide berriak zabaltzen hasten dira. Droga kontsumitzaileen eskubideak aintzat hartzea eskatzen hasten da eta aldi berean zenbait droga-kontsumoek izan ditzaketen arriskuak eta kalteak kontuan izatea eskatzen hasten da. Abstinentzia oinarritzat hartzen duten tratamenduekin batera, beste era batekoak eskatzen hasten dira, mantentze programak esaterako.
- ▣ Droga-mendekotasunen fenomenoari modu orokorragoan ekiteko asmoarekin, erantzun instituzionalak ematen hasten dira eta horretarako oinarritzat hartzen dituzte errealitatearen printzipioa eta fenomenoaren normalizazioan aurrera egiteko premia. Testuinguru honetan, urrutira gabe, Eusko Jaurlaritzak Droga-mendekotasunen inguruan osatu duen 2004-2008ko V. Planak, Herri Planen garapenerako oinarri garrantzitsuak jartzen ditu.

2.2.- Tokian tokiko eremukoak.

■ 2000. urteko maiatzean Orioko Udalak, Ongintza Siletik, Droga-mendekotasunen Prebentzioa lantzeko proposamena egiteko eskatu zion Izadiari (Ikerketa Sozialak egiten diharduen Kabinetea). Proposamen hau arlo ezberdinetan gauzatzekoa zen, familia eta eskola eremuan, batik bat. Familia eremuan, herriko gurasoekin saio batzuk burutu ziren, eta eskola eremuan berriz, osasun-heziketarako eta droga-mendekotasunen prebentziorako programa integral batekin hasi ginen elkarlanean.

■ Urte berdinean, Askagintza herri erakundeari “Komunitatea eta Drogak” ikerketa burutzeko eskaera egin zitzaion. Ikerketa hau aurretik Oihartzungo herrian burutu zenaren parekoa zen eta bere helburu nagusiak Oriko droga-mendekotasunen fenomenoak duen eragina ezagutzea, gaiari buruzko diagnosi erreal bat izatea eta antzematen diren errealitate problematikoak hobetzeko eta erantzun egokiak bilatzeko lan-programa eraginkor bat burutzea izan ziren.

■ Askagintzak, “Izadia” Ikerketa Sozialak egiten diharduen Kabinetearekin batera eta bi lagunez osatutako lan-taldean (horietako bat herrikoa bertakoa zen) ikerketa aurrera eramatea onartu zuen. Ikerketa, 2002ko apirilean Orioko Udaletxeko Ongintzako Batzordearen aurrean aurkeztu zen.

■ 2004ko otsailean Orioko Udalbatza berria Askagintzarekin harremanetan jartzen da eta hartutako bi akordio estrategikoen berri ematen du: bata, ikerketaren eta Herri Planaren eguneratzea eta bestea, lankidetzarako hitzarmen baten bidez, Planaren kudeaketa zuzena Askagintzak burutzeko proposatzea.


■ Eskatutako lana martxan jartzen du Askagintzak eta horren adierazle dira eguneratutako Ikerketa eta Droga-mendekotasunen inguruko Herri Planaren Oinarrien aurkezpena. “Oriko” Plana, eztabaidarako tresna bat izateko asmoarekin eginga dagoenez, ongi etorriak izango dira ekarpenak, kritikak, gomendioak, aldaketa proposamenak etab. Emendakinak egiteko garaia bukatutzat emango da udalak azken erabakia hartzen duenean eta 2006-2010 urte bitarteko herri esku-hartze programa burutakoan.



Denbora luzean droga-mendekotasunen fenomenoari aurre egiteko erabili izan diren bideak (“Esan ezetz drogei!” eta “Debekuaren bidea: zenbait droga hartzen badituzu zigortua izanen zara!”) ditugu hauek, baina gure asmoa ez da era honetako mezuak zabaltzea eta erabiltzea. Fenomeno honen historiari irudiak jartzeko Tasiok egindako marrazkiak beterik ez dira horiek.

3.1.- Herri Planean kontuan hartu beharreko oinarriko legeak.

3.1.1.- Droga-mendekotasunen prebentzioa, asistentzia eta gizarteratzearen inguruko ekainaren 25eko 18/1998 Legea.



- ▣ Droga-mendekotasunen fenomenoari loturiko faktore esanguratsuetan esku-hartzea.
- ▣ Substantziak kontrolatzeko eta pertsonak (adingabeak eta kaltetutako hirugarren norbanakoak bereziki) babesteko neurriak abian jartzea.
- ▣ Droga-mendekotasunen fenomenoari modu orokorrean, diziplinartekoan, kausa aniztasunetik eta abordatze pedagogikotik heltzea.
- ▣ Droga-mendekotasunen Herri Planak Prebentzio Komunitarioaren ikuspegitik eta herritik bertatik eta herriarentzat jarduteak lehentasuna izatea.
- ▣ Drogazalearen asistentziaren inguruko esku-hartze oro Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Zerbitzuan guztiz integratzea.
- ▣ Arrisku eta kalteen murrizketa filosofia txertatzea, bitarteko helburuak dituzten Programak martxan jarriaz.
- ▣ Gizarteratze prozesuak bultzatu, marjinazioa eta desberdintasun soziala sortzen dituzten zergatietan eraginez.
- ▣ Gizabanako horiei beren testuinguru pertsonaletan, familiarretan eta sozialetan aholkuak emanaz.
- ▣ Droga-mendekotasunen fenomenoari buruzko errepresentazio sozial objektiboagoak eta errealagoak eraiki eta aldi berean gai honen inguruan dauden pertzepzio sozialak zabaltzea eta eraldatu, hau guztia baliagarria suertatuko baita prebentzio, asistentzia eta birgizarteratze sozialerako egitasmoak errazteko.

3.1.2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Drogen Mendekotasunari buruzko V. Plana 2004-2008.

- ▣ Bost urteko iraupena duen lehenengo Plana da, Europar Batasuneko hainbat herrialdeetako planek duten joerari jarraituz.
- ▣ Plana tokian tokiko beharretara (errealitatearen printzipioa), aukeretara (lehentasunezko helburu gisa, drogen erabilera problematikoak murriztea) eta eraginkortasunetara (programak eta proiektuak irizpide operatiboak eta ebaluagarriak jarraituz zehaztea) egokitzeko ahalegin tekniko eta politikoa egitea komeni da.

- ▣ Osasun-heziketa eta ekimen komunitarioaren estrategien alde egin behar da droga-mendekotasunen prebentzio programak eta egitasmoak garatzeko, betiere sozializazio eremu ezberdinak kontuan hartuz (familia, eskola, inguru irekia, lan mundua eta komunitatea).
- ▣ Droga-mendekotasunen inguruko Herri Planak sustatu, herri dinamikan oinarrituz eta Droga-mendekotasunen Prebentziorako udal lan-taldeek eta Udaletxeek duten oinarritzko papera aintzakotzat hartuz.
- ▣ EAEko mankomunitateetako eta Udaletxeetako Herri Plan ezberdinak "zintzilikatzeko" aukera izango duen egitura operatibo baten eskaintza.
- ▣ Prebentzio unibertsala, selektiboa, diseinatua eta zuzendua egiteko programak eta egitasmoak definitzea, honetarako irizpide eraginkorrak eta ebaluaziorako errekurtsoak eskainiz.

3.2.- Udalek Droga-mendekotasunen inguruan Udalei emanako eskumenak.

- ▣ 36.4. artikulua. Drogen Mendekotasunaren inguruko Tokiko Planaren elaborazioa eta garapena, EAEko Drogen Mendekotasunari buruzko Planaren preskripzioen arabera burutzea.
- ▣ 42. artikulua. Drogen Mendekotasunen Tokiko Kontseiluak eratzea, EAEko Droga Mendekotasunen Aholku Kontseiluaren eginkizun berberak dituztela.
- ▣ 43. artikulua. Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiarekin lankidetzan aritzea, droga-mendekotasunen prebentzio komunitarioko jarduerak garatzean.
- ▣ 33.1. artikulua. Behar sozialen estaldura.
- ▣ 33.2. artikulua. Marjinazioaren prebentzioa, gizarteratzea eta lan munduan integrazioa.
- ▣ 33.3. artikulua. Pertzepzio sozialetan eragin.

3.3.- Droga-mendekotasunei buruzko Planarekin loturiko sektorearteko planekin koordinazioa.

- ▣ Gizon eta emakumeen arteko Berdintasunerako Plana.
- ▣ Gazte Plana.
- ▣ Immigrazio Plana.
- ▣ Heziketarako Plana.
- ▣ Udalak beste hainbat Plan martxan jar ditzake, beti ere Droga-mendekotasunen Fenomenoarekin erlazioa dutela ikusten badu.



www.drogomedia.com/institucional.htm

Plana euskaraz edo erdaraz aurreko web orrian eskura daiteke.

4.- DIAGNOSTIKO KOMUNITARIOAKO BIDEAN.

4.1.- Droga- kontsumoak eta erabilerak.

Drogen erabilpena historian zehar zibilizazio guztietan egin da; kultur-, gizarte- eta erlijio- testuinguru ezberdinetan. Erabilpen desberdin horiek ahal den ondoen definitzeko irizpide ezberdinak erabili beharko ditugu, adibidez:

S	SUBSTANTZIAK	ezaugarriak, kalitatea, efektuak, nahasketak, etab.
G	GIZABANAKOAK	nortasuna, adina, heldutasun maila, trebetasun sozialak, etab.
Ko	KONTSUMOAK	kantitatea edo dosia, aldizkakotasuna, generoa, etab.
T	TESTUINGURUAK	lan-arlokoak, aisialdia, arrisku egoerak, etab.
I SK	INGURUNE SOZIOKULTURALA	droga kontsumitzeak duen balorazio soziala (onespena, tolerantzia edota beligerantzia), kontsumoa bultzatzeko eta sustatzeko droga bakoitzaren inguruan egiten den publizitatea, etab.
D	DENBORA	noizbehinkakoak, ohikoak, egunerokoak, etab.
O	OSASUNA	egokiak, desegokiak, arazo-sortzaileak, etab.
A	ARRISKUA	zein egoeratan edo baldintzatan kontsumitzen den: arrisku handikoa, erdi mailakoa eta baxua.
M	MENDEKOTASUNA	psikologikoa, fisikoa eta funtzionala.
H	HELBURUA EDO ASMOA	soziala, esperimental, konpulsiboa, inhibitua, terapeutikoa, funtzionala, etab.
L	LEGEDIA	legalak edo ilegalak: zigorrak, isunak, arauak, publizitatea, etab.



Alderdi horiek guztiak kontuan izan beharko dira droga-mendekotasunen fenomenoaren diagnostikoa eta errealitate-azterketa modu objektiboan eta justuan egin nahi bada, droga-mendekotasunen fenomenoan ideologiak duen eraginaren berri badakigulako, pertsonen eskubideen eta irizpide zientifikoaren kalterako.



4.2.- Droga-kontsumoaren datuak eta joerak: azterketa konparatiboa (Oriko datuen estrapolazioa).

1. TAULA: Hainbat substantzia kontsumitzearen larritasunari buruzko pertzepzioa (ehunekoak eta batez bestekoak) 2004.

Larritasun maila	Alkohola	Tabakoa	Droga ilegalak	Cannabisa/ haxixa
Batere larria ez	8,0	5,6	3,5	9,4
Zertxobait	32,8	24,6	15,1	21,3
Nahikoa	42,2	44,2	33,7	31,9
Oso larria	16,0	24,4	43,4	31,7
Ed / Ee	1,0	1,2	4,3	5,7
Batez bestekoa (1) batere larria (4) oso larria	2,67	2,89	3,22	2,91
N = 3.814	100%			

2. TAULA: Lanegunetako eta jai egunetako alkohol kontsumoa adinaren eta sexuaren arabera (ehunekoak, 2004).

	Gizona	Emakm.	15-19	20-24	25-34	35-49	50-64	65-79
Lanegunetako kontsumoa								
Abstemioa	56,6	80,4	95,8	82,7	78,7	66,1	53,9	57,4
Ia abstemioa	25,1	16,1	4,2	12	13,9	21,4	31,8	25,4
Neurriz edaten du	14,2	3,5	-	2	6,1	10,2	11,2	15,8
Gehiegi edaten du	3,6	-	-	2,2	1,1	2,1	2,8	1,3
Arriskuko edalea	0,5	0,1	-	1,1	0,3	0,2	0,3	-
Jaiegunetako kontsumoa								
Abstemioa	16,1	30	19	9	18,8	23,5	27,6	34,3
Ia abstemioa	29,7	37,6	15,7	15,4	28,6	38,4	42,5	39,6
Neurriz edaten du	28,2	21,6	27,3	26,8	24,6	27	22	22,5
Gehiegi edaten du	17,6	7,8	20,9	31,3	18,2	9,4	6,3	3,6
Arriskuko edalea	8,5	3	17,1	17,5	9,8	1,8	1,6	--
	1.862	1.952	214	267	841	1.166	792	534

3. TAULA: Tabako kontsumoa sexuaren eta adinaren arabera (ehunekoak, 2004).

	Gizona	Emakumea	15-19	20-24	25-34	35-49	50-64	65-79
Erretzailea	37,2	32,9	36,1	41,4	41,5	45,4	23,9	14,8
Erretzaile ohia	21,6	15,7	6,2	13,5	15,2	21,2	22,5	22,5
Ez-erretzailea	41,2	51,4	57,7	45,2	43,2	33,4	53,6	62,6
N	1.862	1.952	214	267	841	1.166	792	534

4. TAULA: Cannabisaren eratorrien kontsumoa (bizitza osoan noizbait, azken urtean, azken hilabeteetan eta egunero) sexuaren eta adinaren arabera (ehunekoak, 2004).

		Bizitza osoan noizbait	Azken urtean	Azken hilabeteetan	Egunero
Populazioa orokorrean	Guztira	31,7	12,0	9,1	2,9
Sexuaren arabera	Gizona	39,1	16,7	13,0	4,9
	Emakumea	24,3	7,4	5,0	0,9
Adina	15-19	39,2	28,8	23,6	5,5
	20-24	55,0	33,3	26,0	11,5
	25-34	55,6	19,6	15,0	5,0
	35-49	37,8	10,0	6,3	1,4

5. TAULA: Beste legez kanpoko drogen kontsumoa orokorrean (bizitza osoan noizbait, azken urtean eta azken hilabeteetan, ehunekoak) 2004.

	Bizitza osoan noizbait	Azken urtean	Azken hilabeteetan
Speeda, anfetaminak	11,1	2,8	1,5
MDMA	4,5	1,2	0,7
LSD	6,6	0,9	0,2
Kokaina	9,9	3,4	1,5
"Basea", cracka	0,6	-	0,0
Heroina	0,9	-	0,0
Beste opiazekoak	0,3	0,1	0,0
Arnasgarriak	1,3	0,2	0,1
Perretxiko haluzinogenoak	4,8	1,1	0,1
Ketamina	0,7	0,3	0,2
Kirolarekin lotutako drogak	0,2	0,1	0,1
Beste batzuk	0,1	-	0,0

La tira de Ripa

Una encuesta revela que 4 de cada 10 jóvenes se emborracha al menos dos veces al año.



¡MENUDA JUVENTUD LA DE AHORA!... SE DROGAN HASTA LAS CEJAS Y LO VAN DICHIENDO POR AHÍ, A LOS 4 VIENTOS, "PA" QUE LO SEPA "TODIOS"

RIPA

4.3.- Droga-mendekotasunen Fenomenoarekin zerikusia duten arazoengatik inguruko datuak eta joerak.

4.3.1- Joera nagusiak:

- Lehenengo aldiz drogak kontsumitzen hasten deneko adinak behera egin du eta gero-eta nerabe gehiago dira drogak kontsumitzen dutenak. Horrela, drogak probatzen eta hauekin esperimentatzen gero eta gazteago hasten dela esan daiteke, baita noizbehinka, ohituraz eta gehiegi kontsumitzen ere.
- Hasierako droga kontsumo horiek izaten duten arriskuez ez dira gehiegi jabetzen, arrisku-pertzepzioa txikia dutelarik. Erabiltzen diren lehen drogak tabakoa, edari alkoholikoak eta cannabisaren eratorriak izaten dira.
- Testuinguru eta giro jakin batzuetan zenbait drogen erabilpena orokortu eta zabaldu egin da (asteburuetan, festa garaian, aisialdi gunetan, etab.). Droga-kontsumoa zabaldu egin den arren, honek ez du esan nahi droga kontsumo problematikoak areagotu egin direnik.
- Zenbait droga kontsumitzeko moduan aldaketak eman dira. Haxixaren kontsumoak gero eta antza handiagoa du tabakoarenarekin. Edari alkoholikoen kasuan asteburuetan kontsumitzen dira gehienbat; gainera, kantitate handitan, denbora motzean eta toki berean. Kokaina toki ludikoetan hartzen bada ere, horietatik at gehiago kontsumitzen da eta "anestesia" moduan erabiltzen da batik bat.
- Konpulsiboki kontsumitzen da masifikatuak dauden aisia-guneetan. Lagun askok droga bakarra kontsumitzen badute ere, gero eta gehiago dira droga bat baino gehiago hartzen dabiltzanak, horregatik, polikontsumoaren errealitatearen aurrean gaudela esan daiteke.
- Baliabide ekonomiko nahikoekin edonork ditu eskura bai droga legalak, bai ilegalak. Ulertzen erraza ez bada ere, urteek aurrea egin ahala zenbait droga ilegalen (haxixa, kokaina, heroina, etab.) prezioak behera egin du. Beste gauza askoren artean adulteraziorako dagoen joeraren adierazle izan daiteke. Egoera honek zuzenean eragiten duen kalte nagusienetako bat kontsumo-arriskutsuaren gorakada da.
- Drogek eragiten duten mendekotasun fisikoez eta psikikoez gain, mendekotasun funtzionalak gero eta gehiago azaltzen ari dira.
- Patologia dualak (osasun mental arazoak, droga ezberdinen adizioekin batera agertzea) gero eta gehiago ematen dira.



4.3.2.- Familia eremuan:

- Baloreetan eta erresposabilitatean hezteko zailtasunak daude. Familiak egitura hierarkiako eta zeregin babeslea duen arren, arau- eta muga-hezigarriak gestionatzeko zailtasunak izaten dira.
- Senide batek, droga legal edota ilegalen bat desegoki edota problematikoki kontsumitzen duenean, negatiboki eragiten du bere familiako sisteman.




4.3.3.- Heziketa Zentroetan:

- Ikasleek astean zehar edo asteburuetan kontsumitzen dituzten drogen eraginak ikastetxeetan nozitzen dira, gehienetan negatiboki. Honek desorientazioa eragiten du eta hankaz gora jartzen ditu zentroetako alderdi akademikoak, elkarbizitza, heziketa eta arauak.
- Irakasleek Osasun-heziketarako eta Droga-mendekotasunen prebentziorako proiektuetan duten funtzio profesionala zehazteko eta mugatzeko orduan zailtasunak dituztela adierazten dute.
- Prebentzio selektiboan eta egokituan esku-hartzeko beharrezkoak diren detekzio goiztiarerrako eta protokoloko baliabideak martxan jartzeko gabeziak dituztela esaten dute. Defizit horiei aurre egiteko beharrezkoak dira ikasle eta familia zehatz horientzat egokitutako aholkularitza, babesa, bitartekotza, etab; errekursoak eskaintzea, alegia.



4.3.4.- Komunitateetan:

- Herritarren artean elkarbizitza tentsioak eta arazoak sortzen dira, batez ere masifikatutako aisialdi garaietan hain zabalduak dauden droga legal eta ilegalen kontsumoengatik.
- Herritarren artean tentsioak sortzen dira, batez ere gazteak eta adin txikikoak elkartzen diren zenbait tokitan eta droga legal edota ilegalen kontsumoengatik.
- Komunitatean nagusitzen ari den delegazionismoa (egin dezatela besteek) eta solidaritate ezaren ondorioz, herritarren parte hartzea eta lankidetzak eskasten ari da.



4.4.- Droga-mendekotasunen fenomeno sozialaren inguruan egiten diren eskakizunen eta dauden pertzepzioei buruzko datuak eta joerak.

■ Alkohola eta tabakoa dira gehien hartzen diren drogak, baita kontsumo arazotsuak, osasun kalteak, elkarbizitza arazoak eta ongizaterako zailtasun gehien eragiten dituztenak ere. Esandakoa errealitateko datu objektiboetan oinarrituta badago ere, komunitateko hainbat sektoretan hau honela denik ez dute antzematen, arriskugarritasuna droga ilegalekin soilik parekatzen baitute.

■ Cannabisaren eratorriak (marihuana eta haxixa) dira gehien kontsumitzen diren droga ilegalak; gainera droga hauen kontsumoak sor ditzakeen arriskuen inguruan pertzepzioa baxua dago.

■ Droga bizigarrien (speed, kokaina...) kontsumoa gora doa eta asteburuetan kontsumitzen dira batez ere (parranda egiteko, erritmoa mantentzeko...), nahiz eta gero eta gehiago izan egunerokotasunari eusteko (lana, harremanak...) kontsumitzen dutenak.

■ Sintesi drogak, laborategian sortuak, lehengai naturalik gabeak, ekoizpen eta banaketa errazekoak eta etekin ekonomiko handien eragile dira. Droga hauen kontsumo-joera gero eta kezkarriagoa da, egoera prekarioetan eta balore krisia dagoen inguruan ematen baita.

■ Zenbait droga kontsumitzeko moduetan aldaketak ematen ari dira. Edari alkoholikoei dagokionez, orain dela gutxi arte mediterranearen moduan kontsumitzen zen (egunero eta gehienetan neurritz); egun, anglosaxoi eredu nagusitzen ari da (denbora tarte txikian alkohol kantitate handiak). Haxixari dagokionez, jatorrizko kulturaren kontsumitzeko moduak gurean ez du lekurik hartu, tabakoa kontsumitzeko moduarekin antz handiagoa baitu. Kokaina, aldiz, modu ludikoan kontsumitzen bada ere, lan munduan gero eta gehiago kontsumitzen da, baita beste droga batzuek sortzen duten ajea arintzeko edo beherakada gainditzeko ere.

■ Asteburueta droga kontsumoa gero eta sarriagoa da. Gainera, kontsumitzen hasten deneko adina jaisten ari da. Haurtzaroa gero eta motzago eta adolezsentzia gero eta luzeago egiten ez ote garen egiten susmoa dugu.

■ Polikontsumorako joera nabarmentzen ari da, droga ezberdinak nahasirik edota denbora tarte motzean kontsumitzen direlarik.

1



2



3



4



MEDITERRANEAR EREDUA

Norbanakoak iraunkortasunarekin edo modu jarraian edaten du, hots, egunero. Normalki ez zaio antzematen toxikapen seinalerik, baina gehiegizko kontsumoa eta mendekotasuna eman daiteke. Erlazio sozialen eremuan ematen den kontsumoa izaten da hau.


ANGLOSAXOI, NORDIKO EDO BINGE DRINKING EREDU (edari betekada)



Norbanakoak noizbehinka edo epe zehatz batean edaten du. Eredu hau jarraitzen dutenak gehienetan gazteak izaten dira eta asteburuetan graduazio altuko edari alkoholikoen (distilatuak batik bat) edaten dituzte, toxikapen nabarmenetara iritsiz eta asteko lehen egunetako funtzionamenduan ondorioak nozituz. Oro har, aisialdiari lotutako kontsumoa izaten da, etxetik kanpo egiten dena, taldean eta parrandarekin eta ondo pasatzearekin lotuta egoten da.

5.- HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA.

5.1.- Plangintzarako irizpideak.



5.1.1.- Egonkorrak:

Aspalditik martxan dauden esku-hartzeak eta baliabideak dira, beren eraginkortasuna aski frogatua izaten dutelarik. Droga-mendekotasunen fenomenoari heltzeko sortutako Herri Planerako ezinbestekoak izaten dira, bere egituraren oinarri nagusiak baitira.



5.1.2.- Esperimentalak:

Berriki ezarritako esku-hartzeak eta baliabideak dira. Esku-hartze edota baliabide egonkorrekin bete ezin diren hutsuneei edota arazoei irtenbidea bilatzeko sortuak izaten dira. Herri Planaren egituraren ezartzen diren euskarri berriak izaten dira.



5.1.3.- Hasi berriak:

Sortu berri diren faktoreei, droga-kontsumitzaileen ezaugarriei, substantziei, kontsumitzeko moduei, arazoei, etab. erantzuteko sortutako esku-hartzeak eta baliabideak dira. Berriki sortutako errealitate horiei berehalaxe aurre egitea ezinbestekoa izaten da. Herri Planaren garapen prozesuan eranstean diren egiturak izaten dira.

5.1.4.- Ondoko ezaugarriekin aritzea ere ezinbestekoa da:


- egonkorrak diren esku-hartzeak eta baliabideak hobetzen eta egokitzen joatea.
- droga-mendekotasunen fenomenoaren inguruan etengabe ematen diren aldaketei aurre egitea.
- errealitate berriak etengabe sortzen ari baitira, dagoeneko martxan dauden estrategiak eta esku-hartzeak egokituz joan behar dira. Droga-mendekotasunen fenomenoak jasaten dituen gorabehera horiek aurreikustea premiazkoa da, baita horiei eraldaketa soziala aplikatzea ere.



5.2.- Esku-hartze esparruak.

1.- Eskaintzaren kontrola.	2.- Eskaeraren murrizketa.	3.- Babes eta koordinazio ekimenak.
▣ Edozein motatako drogen publizitatearen eta promozioaren kontrola. ▣ Edari alkoholikoen eta tabakoaren banaketaren edota horniketaren kontrola. ▣ Adingabekoen droga-kontsumoaren kontrola.	▣ Prebentzioa. ▣ Asistentzia. ▣ Gizarteratzea.	▣ Formazioa-prestakuntza. ▣ Ikerketa. ▣ Informazioaren zabaltzea. ▣ Burututako jardueren analisia eta ebaluazioa. ▣ Parte hartzea sustatu, koherentzia eta lankidetzat bilatuz. ▣ Udaleko beste sailekin, elkarte ezberdinekin, beste herrietako prebentzio-taldeekin eta Eusko Jaurlaritzako Droga-mendekotasunen Zuzendaritzarekin modu koordinatuan aritu.


5.3.- Lehentasuna duten esku-hartze esparruak eta kolektiboak.

ESKU-HARTZE ESPARRUAK 	▣ eskola ▣ familia ▣ lan-mundua ▣ aisia-gunea ▣ zonalde deprimituak, etab.
ESKU-HARTZE KOLEKTIBOAK 	▣ nerabeak ▣ gazteak ▣ droga kontsumo arazotsuak egiten dabiltzanak ▣ egoera ahulean dauden kolektiboak ▣ gizarte-bazterketa jasaten duten norbanakoak, etab.

5.4.- Esku-hartze ezberdinen sailkapena.

DROGEN ERABILERA MAILA		EKIMEN-MOTA - POPULAZIO-MOTA		ESTRATEGIAK - HELBURUAK		JARDUERA - ARLOAK
KONTSUMO MAILAN ALDAKORTASUNA	Abstinentzia	EKIMEN - ANIZTASUNA	Unibertsala	HELBURU - ANIZTASUNA	Abstinentzia (0 kontsumoa)	JARDUEREN INTEGRATZIOA
	Esperimentazioa (probatzea)					
	Neurrizko kontsumoa		Selektiboa		Neurrizkoa (Kontsumo arduratsua)	
	Kontsumo problematikoa		Egokitua		Arriskuak gutxitzea (zuhur kontsumitzea)	
	Mendekotasun-arazoa		Zehatza		Kalteak murriztea	
						Prebentzioa
						Asistentzia
						Gizarteratzea

ESKU-HARTZEEN SAILKAPENA

Unibertsalak 	Populazio orokorrari edo arrisku-faktore jakinekin identifikaturik ez dauden jende-talde handietara zuzendutako programak eta proiektuak dira.
Selektiboak 	Populazioko talde jakin bati zuzendutako programak eta ekimenak dira. Talde horiek arrisku-faktore jakin batzuekin jokatzeko dutenez, drogekin zerikusia duten hainbat arazo izateko arriskua dute.
Egokituak 	Drogak kontsumitzen dabiltzanei edota kontsumoaren ondorioak eta arazoak jasaten ari direnenei bideratutako programak dira.
Zehatzak 	Drogazaletasun-arazoak dituzten lagunei bideratutako esku-hartzeak dira, prebentzio mailakoak, asistentzia alorrekoak edota gizarteratzekoak izan daitezkeelarik. Kasu horietan, arriskua ez da mendekotasuna sortzeko dagoen posibilitatea, baizik eta substantzien etengabeko erabilerak eragin ditzakeen osasun eta segurtasun arazoak.

5.5.- Eraldaketarako estrategiak.

5.5.1.- Osasuna sustatu, Osasun-heziketa estrategiaren bidez. Heziketa honen bidez faktore eta baldintza sozial egokiak eraiki behar dira, jokabide eta bizitza estilo osasuntsuagoak errazteko.

5.5.2.- Asistentzia-, prebentzioa- eta gizarteratze- esparruetan arriskuen gutxitzea eta kalteen murrizketa ikuspegia ezarri.

5.5.3.- Ekimen guztietan genero-ikuspegia kontenplatu, berdintasun eraginkorragoaren mesedetan.

5.5.4.- Ebaluazioa modu sistematikoan garatu, jardueren eta programen etengabeko hobekuntza eta ikaskuntza indartzearen.

5.5.5.- Estrategia komunitarioa sortu, herritarren partaidetzan eta komunitatearen barruan dauden elkarten sustapenean oinarrituz. Era honetara komunitatean sortzen diren gatazkei irtenbideak bilatuko zaizkiolako, bertako partaide izatearen sentimendua sortuko delako eta kooperazio jarrera izango delako.

5.5.6.- Estrategia normalizatzailea eskaini, drogak dauden gizarte batean pertsonak haiekin hartu-eman osasuntsuak eta arrazionalak izateko gai direla sinetsiz. Aldi berean, gai honen inguruan egiten diren muturreko irakurketak, banalizatzaileak (drogekin ez da ezer gertatzen) eta debekatzaileak (drogak txarrak dira), gainditu beharko dira. Pertsonaren eskubide eta libertate indibidualak errespetatzea ezinbestekoa da, baina aldi berean komunitateak dituen eskubide kolektiboak ere bermatu beharko dira. Horretarako ezinbestekoa da droga-mendekotasunen fenomenoaren inguruan ditugun errepresentazio sozialak eta irudi kulturalak zabaltzea eta zaharberritzea, merezi duen objektibitatea, globaltasuna, kausa aniztasuna eta solidaritatea oinarritzat hartuz.

drogak dauden gizartean haiekin hartu-eman osasuntsuak eta arrazionalak izateko

Osasuna sustatu

kalteen murrizketa

Osasun-heziketa

arriskuen gutxitzea

genero-ikuspegia

**Pertsonaren eskubide eta libertate indibidualak
errespetatzea**

*Drogak kontsumitzeko orduan
helduok ditugun eskubide eta
betebeharren arauak ezaqutu
eta betetzeko konpromisoa hartu
behar dugu orrioko herritarrok.*

ASISTENTZIA

PREBENTZIOA

GIZARTERATZEA

Normalizazioa





6.- PLANAREN XEDEAK ETA HELBURU OROKORRAK.

6.1.- Planaren baloreak eta printzipioak.

- 6.1.1.- Gizartean ematen diren desberdintasunak gainditzen aurrera egin.
- 6.1.2.- Droga-mendekotasunen fenomeno sozialari hurbilketa globala bilatu.
- 6.1.3.- Fenomenoa islatzen duten errealitateen aurrean, errespontsabilitateak banatu, norberak bereak edo dagozkionak hartuz.
- 6.1.4.- Koordinazio eta lankidetzaren prozesuetan aritu.
- 6.1.5.- Partaidetza komunitarioan aritu.
- 6.1.6.- Bitartekotza prebentiboan arituko denaren irudia eta funtzioa sustatu.
- 6.1.7.- Sare-lana garatu.
- 6.1.8.- Espazio sozio-sanitarioa eratu.
- 6.1.9.- Drogak kontsumitzea erabakitzen duten pertsonen izan dezaketen gaitasunean eta erantzukizunean sinetsi eta aintzat hartu.
- 6.1.10.- Programak eta proiektuak ahalik eta gehien zabaltzea ahalbideratu.
- 6.1.11.- Esku-hartzearen helburuetan aurrera egin.
- 6.1.12.- Esku-hartze ezberdinek transformaziorako duten baliagarritasuna oinarritzat hartu.
- 6.1.13.- Diseinatu, garatu eta ebaluatu diren edo behar diren programen eta proiektuen kalitateari atentzia jarri.
- 6.1.14.- Genero ikuspegia integratu.
- 6.1.15.- Kultura aniztasun ikuspegia integratu.
- 6.1.16.- Errekurtsoen optimizazioa edota hobekuntza bilatu.
- 6.1.17.- Diseinuen, prozesuen eta emaitzen ebaluazioa egin.

6.2.- Planaren xedeak edo helmugak.

- 6.2.1.- Osasunaren sustapena, osasun-heziketarako eta droga-mendekotasunen Prebentziorako programa eta proiektuen bitartez, estrategia komunitarioak erabiliz.
- 6.2.2.- Orioko herrian dauden droga kontsumo problematikoak ahalik eta gehien gutxitzea.
- 6.2.3.- Droga-mendekotasunen fenomenoaren normalizaziorantz aurrera egiteko, pertsonak eta komunitateak drogekin izan ditzaketen hartu-emanetan erabaki osasuntsuak eta arduratsuak hartzeko duten edo izan dezaketen gaitasunean sinetsi behar dugu. Aldi berean, norbanako helduek drogak kontsumitzeko duten eskubidea aintzat hartu behar dugu eta adin txikikoak eta ahulenak kontsumo horietatik babesteko helduok dugun erantzukizuna gure gain hartu behar dugu.



6.3.-Planaren oinarritzko printzipioak.

6.3.1.- Onartu beharra daukagu drogak beti izan direla, egun ere bertan daudela eta etorkizunean ere hor egonen direla. Arazoa ez dago drogen existentzian; norbanakoak eta komunitateak haiekin egiten dugun erabilpen egokian edo desegokian dago gakoa.

6.3.2.- Drogak dauden gizarte honetan aske bizitzen ikasi beharra daukagu. Drogekin izango dugun hartu-eman ahalik-eta askeena egiten ikasi beharra daukagu, mendekotasunak saihestuz. Horretarako pertsona gisa hezi behar dugu eta bizi dugun testuinguru soziala, kulturala, ekonomikoa, ekologikoa eta politikoa eraldatzen saiatu behar dugu, ahal den justuena, osasuntsuena, solidarioena eta demokratikoa eraikiz.

6.3.3.- Droga-mendekotasunen fenomenoari aurre egiteko debekuan eta marjinazioan oinarritzen diren politikak salatzea ezinbestekoa da, ez direlako gaiari irtenbidea emateko gauza eta sortzen dituzten efektuak on baino kalte gehiago egiten dutelako (drogen demandaren gorakada, ustelkeriak, mafiak, droga trafiko sareak, diru zuriketa, kontrol soziala, etab.).

6.3.4.- Droga-mendekotasunen fenomenoak normalizazioaren bidea jarraitzeko, errepresentazio sozialakeraikitadynamikakomunitarioaksortu.Horretarako justizian,solidaritatean,integrazioan, aniztasunaren errespetuan, komunikazioan eta partizipazioan oinarritutako baloreak, jarrerak, jokamoldeak, gaitasunak eta trebeziak eskuratu behar ditugu.

6.3.5.- Osasunaren alde egin behar da, Osasun Heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentziorako proiektuen bidez. Horretarako gurasoak, gazteak, hezitzaileak, profesionalak, bitartekari sozialak eta hiritar-herriar oro subjektu prebentibo gisa hezi eta trebatu behar ditugu, fenomeno honen konponbidean guztiok garelako erantzule.

6.3.6.- Sozializazio egitura ezberdinetatik (familia, heziketa zentroak, lan mundua, elkarteak, ingurune irekiak eta komunitarioak) formazio, ikerketa, ekimen eta eraldaketa prozesuetan lanean aritu. Era honetara arituz droga-mendekotasunen fenomenoari modu zehatzean, operatiboan eta eraginkorrean erantzuteko aukera gehiago dagoelako.

6.3.7.- Gure lanean ondoko arloek lehentasuna izan beharko lukete, adibidez, tokian tokiko lana, bertakoa izatearen eta sentitzearen sentimendua sortzea; gure komunitatearen ezaugarrien analisia egitea, inguruaren azterketa guztion artean egitea eta lortutako diagnostikoa modu kolektiboan eta adostuan sortzea, aurrerantzean diseinatu, garatu eta ebaluatuko diren esku-hartze eta eraldatze programak guztion artean egitea. Honek guztiak ilusioa eta komunitatearen partizipazioa eragiten badu, askoz hobeto.



6.3.8.- Osasun-heziketa eta Droga-mendekotasunen Prebentzioa zer den eta bere nondik norakoak zehazteko irizpide batzuk ondokoak izan daitezke:

- Kontuan izan behar dugu fenomeno global baten aurrean gaudela eta honi aurre egiteko beharrezkoak ditugun tresnak globaltasun horretatik sortu behar direla.
- Norbanakoak eta kolektiboak trebatu behar ditugu, drogekin izango dituzten hartu-emanetan subjektu libre moduan jokatzeko.
- Gure programen dimentsio komunitarioa, baliagarritasuna eta efikazia aintzat hartu beharko ditugu.
- Droga-mendekotasunen fenomenoari espezifikotasunetik aurre egiten bazaio ere, espezifikoak ez diren arloak lantzea ere eraginkorra da.
- Gai honetan ere, generoaren ikuspegiak zer esan handia duela kontuan izan beharko dugu.
- Aniztasunak eta kultura-aniztasuna aberastasun iturri izan daitekeela onartu.
- Fenomeno hau dimentsio anitzekoa dela kontuan izan.
- Normalizazioaren irizpideak erabil beharra.
- Dauden errekurtsoak nahikoak ez direla eta hauek hobetuz joan behar direla ez ahaztu.
- Partaidetza soziala bultzatzea ezinbestekoa da.

6.3.9.- Testuinguru soziokultural kaltegarrietan egiten diren kontsumo desegokiengatik inguruan, kalteak eta arriskuak gutxitzeko programak aurrera eramanez.



6.4.- Planaren lehentasunak.

6.4.1.- Komunitate-ekimena garatu. Ekimen honen oinarri nagusiak heziketa eta bizi baldintzen hobetzea dira, drogekin izan daitezkeen hartu-emanetan norbera subjektu eta benetako protagonista izaten trebatzeko, testuinguru egokiagoak eraikitzeko eta bertan drogekin sor daitezkeen hartu-emanak askeagoak izateko, arrisku eta dependentzia gutxiagorekin.

6.4.2.- Droga-mendekotasunen prebentzioak unibertsala, selektiboa eta egokitua izan behar luke. Arlo espezifikoak eta ez espezifikoak landu behar dira. Droga-mendekotasunen fenomenoak sortzen dituzten zergatiak eraldatzearen alde lan egin behar da. Fenomeno hau normalizaziorantz bideratzeko alternatiba positiboak bilatzeko konpromisoa hartu behar da, norberak bere eremutik eta dituen baliabideen arabera. Europar testuinguruan jarraitzen ari diren debekuen eta hutsalkeriaren bidetik urrundu eta bide berriak eraiki behar dira.

6.4.3.- Aita-amen, hezitzaileen, gazteen, bitartekari sozialen eta laboralen, profesionalen eta politikarien partizipazioan oinarritutako estrategia komunitarioaren alde egin.

6.4.4.- Daukagun eginkizunaz etengabe hausnartu, eguneroko eginbeharra formazioarekin eta ikerketarekin txandakatuz, droga-mendekotasunen fenomenoaren inguruko eginkizuna objektiboagoa eta prebentiboagoa izateko.

6.4.5.- Prebentzio programen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan generoaren ikuspegia txertatu. Ematen diren diskriminazioak duda-mudan jarri behar dira, mezu, balore, jarrera eta jokamolde ez sexistak eraikiz.

6.4.6.- Gazteriak esaten duena entzuteko eta ulertzeko dinamikak sortu. Aldi berean, droga-mendekotasunen fenomenoaren inguruan gazteek egiten dituzten azterketa, hausnarketa, eztabaida eta proposamenei arreta jarri eta haiekin batera kooperatzeko prest egon. Fenomenoaren inguruan gazte kodean egiten diren irakurketak eta alternatibak jasotzen laguntzea da honen helburua eta ez kuxkuxean aritzea.

6.4.7.- Arriskuak eta kalteak gutxitu eta babes faktoreak sortu, drogekin izango ditugun hartu-emanak askeagoak, testuinguru aproposagoetan eta kontsumoak egokiagoak izateko.

6.5.- Planaren helburu orokorrak.

6.5.1.- Droga-mendekotasunen fenomeno sozialak Orion islatzen dituen errealitate ezberdinen azterketa:

- Droga kontsumoaren datuak, joerak, formak, etab. nolakoak diren jaso, datu kualitatibo eta kuantitatiboen bitartez.
- Tokian tokiko datuak beste errealitate batzuetako datuekin kontrastatu. Datu iturri asko badaude ere, Droga-mendekotasunen Euskal Behatokiak jasotakoarekin hasi eta ondoren beste iturburu batzuetara jo daiteke.
- Diagnostiko komunitario objektiboak eta argiak egin.

6.5.2.- Orioko herriari eta bertako sektore eta bereziki herrian dauden kolektibo ezberdinetako kideei, droga-mendekotasunen fenomenoaren inguruan egoki informatu:

- Datuak ahalik-eta objektiboen eta argien eskainiz.
- Bakoitzari dagokion sozializazio egituraren (familia, eskola, elkarteak, koadrilak, lantokiak, etab.) eta beren errealitateekin zerikusi zuzena eta normalizatua duten prozesuak aurrera eramanez.
- Ematen den informazioa bakoitzari dagokion garapen prozesura (haurtzaroa, adoleszentzia, gaztaroa, etab.) egokituz.

6.5.3.- Droga-mendekotasunen fenomeno sozialaren zergatien eta ondorioen inguruan sentsibilizatu.

- Gai honek, zuzenean edo zeharka, guztioi eragiten digula jabetuaraziz.
- Herria osatzen duten sektore eta kolektibo guztiek jarrera eta ekimen solidarioagoak izan, norbera bere esparrutik.



6.5.4.- Fenomeno honen inguruan Orion nagusitzen diren errepresentazio sozialak zabaldu, normalizazioaren bidetik Eztabaida Soziala bultzatuta:

- Esku-hartze globalagoak eta arrazionalagoak egin ahal izateko beharrezkoak ditugun errepresentazio sozialak zabalduz.
- Eskaera eta erantzun partehartzaileagoak, koherenteagoak, diziplina anitzekoak eta konprometituak eraikiz.
- Nagusi diren irudi sozial eta kulturalak zabalduz. Askotan drogaz hitz egiten denean ilegalez bakarrik aritzen gara, droga kontsumitzaileaz ari bagara denak menpekoak direla uste dugu eta horrela hamaika gehiago.
- Droga-mendekotasunen fenomenoak sortzen duten zergatiak eta faktoreak eraldatzeko eta gainditzeko lagungarri suerta daitezkeen irizpideak eskainiz.
- Jende bakoitza bere inguruan integratua egotea eta sentitzea ezinbestekoa baita, horren aldeko apustua eta ahalegina egin behar da. Integrazioa era aktiboan eta kritikoa burutu behar da, norberak bere tokia aurkitu behar du, bertan egoki eta baliagarri sentituz, ezberdina izanagatik errespetatua (aniztasunaren errespetua) eta dituen diferentziak konpentsatuak (justizia sozialaren eskubidea) izan behar dituelarik.



6.5.5.- Osasun-heziketaren eta Droga-mendekotasunen Prebentzio espezifikoaren eta inespezifikoaren alde egin. Herri osoan edota bertako sektore konkretuekin, prebentzio ekimen mota ezberdinak jar daitezke martxan, adibidez, unibertsala, selektiboa eta egokitua.

- Sozializazio egituretan landuz.
- Eskaera konkretuei atentzioa jarritz.
- Prebentzio ekintzen benetako subjektuak gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, gazteak, bitartekari sozialak eta herritarrak direla sinetsiz eta onartuz.

6.5.6.- Mota ezberdinetako drogek, modu desegokian kontsumitzeagatik sortu ditzaketen kalteak eta arriskuak gutxitzeko esku-hartzeak eta ekimenak martxan jarri:

- “Drogak eta sexualitateen” inguruko informazio eta aholkularitza puntuak martxan jarritz. Nerabeei eta gazteei zuzenduak.
- Aisian eskuhartuz, ingurune irekian eta kalteak eta arriskuak gutxitzeko proiektuekin.

6.5.7.- Droga-mendekotasunen inguruko “Orio” Herri Planaren programak eta proiektuak finkatu, normalizazioaren bidean egin daitezkeen planteamendu eta demanda berriei atak zabalik utzita:

- Programak eta proiektuak martxan jartzen direnean eta etengabe egindako ebaluazioaren ondorioz sortzen diren aldaketak izan daitezela aberastasun iturri eta ez dena hankaz gora jartzeko aitzakia.
- Programen eta proiektuen inguruan egindako kritikak, proposamenak, ekarpenak, etab. jasoz, aztertuz, hausnartuz eta sakonduz.



6.5.8.- Bitartekari sozialen formazioa bultzatu, prebentzio agente moduan, partizipazio eta solidaritate sozial prozesuetan:

- Familia-bitartekari, gazte-bitartekari, etab. moduan dabilen profesionalentzat eta interesa duen ororentzat kurtsoak, tailerrak, mintegiak, etab. antolatuz.
- Gai honen inguruan interesa dutenei ikerketak, dokumentuak, liburuak, etab. banatuz.

6.5.9.- Gai horien inguruan partaidetza soziala, boluntariotza eta asoziazionismoa bultzatu. Hau guztia lantzeko aholkularitza, koordinazio eta lankidetzak bideak eskaintzea ezinbestekoa da, baita baliabide pertsonalak, ekonomikoak eta azpiegiturak ematea ere:

- Gai honen inguruan dabilen auto-laguntza taldeei (Alkoholiko Anonimoak, ludopatak, GIB-HIESA, etab.) eta elkartei (Askagintza, Gizakia Helburu, Agipad, etab.) sostengu teknikoa eta ekonomikoa eskainiz.
- Droga-mendekotasunen fenomenoarekin zerikusia duten topaketak, jardunaldiak, tailerrak, etab. antolatuz.

6.5.10.- Droga kontsumo arazotsuak dituzten pertsonentzat eta beren senideentzat, lagunentzat, etab. informazio eta aholkularitza puntu bat eskaini:

- Dituzten eskaerak adituz eta ulertuz.
- Informazio eta aholku profesionala eskainiz.
- Familia bitartekotza eskainiz, diagnostikoak hala eskatzen duen kasuetan.
- Tratamendu eta errehabilitazio prozesuen jarraipena eginez.
- Gizarteratze, familiaratze, laneratze, etab. prozesuetan sostengua eskainiz.

6.5.11.- Droga-mendekotasunen "Orio" Plana diseinatu, kudeatu eta ebaluatu. Prozesu honetan sentsibilizazioa, prebentzioa, trebakuntza, ikerketa, arrisku eta kalteen gutxitzea, tratamendua eta gizarteratzea sustatzeko programak, proiektuak eta esku-hartzeak sortu behar dira. Hau guztia, herritarren eskaerak eta partaidetza kontuan hartuta eta dagokien garapen eta sozializazio egitura eta fasearen arabera egiten da:

- Diseinuaren, prozesuaren eta emaitzen ebaluaziorako irizpideak sortuz eta ipiniz.
- Ebaluaziorako adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak zeintzuk izango diren zehaztuz.
- Herri planaren garapenaren inguruan programak eta urteko memoriak eginez.
- Planaren kudeaketa talde espezializatu batekin hitzartuz.



6.6.- Planaren konpromiso zehatzak.

6.6.1.- Droga-mendekotasunen Fenomenoa osatzen duten errealitateen ezagutzak berritu eta zehaztu.

Droga-mendekotasunen Herri Behatokia.




6.6.2.- Droga-mendekotasunen Fenomenoari buruzko informazio objektiboa eta argia eskaini.

Droga-mendekotasunei buruzko Informazio Gunea.



6.6.3.- Droga-mendekotasunen Fenomenoaren inguruan Orioko komunitatea sentsibilizatu.

Komunikaziorako urteko diseinua.



6.6.4.- Droga-mendekotasunen Fenomenoari buruzko errepresentazio sozial orokorragoak, diziplina anitzekoak eta normalizatzaileagoak eraikitzen joan.

